

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Istorioak kontatzeko hiru bide bidegurutze berean

Hiru musikariak rocketik datoz, baina adar desberdinetatik. Hirurak kantari moduan hasi ziren naturaltasunez eta modu berean batu zituen Gaztelupeko Hotsakek estudio batean, gorputzak eskatzen ziena egiteko. Oso ekinaldi azkar eta inprobisatua izan zen. Hala, hiruren artean kantu bat idatzi zuten batzen dituen bi osagarriekin: *Gaua eta kea*. Bestela, kantariak bina abesti idatzi dituzte estilo propioan: Rafa Ruedak pop-rock xume eta dotorea eginez, ia brit-poparen tankeran; Txuma Murugarrenek Dylanen itzala bere estilora eraman eta berezkoak dituen ironia eta umorea batuta; eta Pettik barruan daraman piztia kanpora atera eta emaitza rockero eta indartsua lortuz. Hori baino gehiago emateko gai dira, baina aitzakia ederra da gaur egungo euskal kantari esanguratsuenetakoak entzuteko.



Hauxe
Txuma Murugarren,
Rafa Rueda eta Petti

GAZTELUPEKO HOTSAK

Iraupena: 27'24"
10 euro

TXUMA MURUGARREN, RAFA RUEDA ETA PETTI

«Diskoak xarma berezia dauka, lagunekin tabernan moduan, bat-batekotasun eta naturaltasun handia daukalako»

Bitxia izan da hirurok disko berean lan egitea?

Rafa Rueda: Egun batetik besterako kontua izan zen. Estudiora sartu ginen zer egin behar genuen ziur jakin gabe. Oso inprobisatua izan da. Hala ere, xarma berezia dauka, taberna batean lagunekin bezala bat-batekotasun eta naturaltasunarekin irten delako.

Bakoitzak musika ildo bat dauka. Zer daukazue komunean?

Petti: Disko honetan deus ez. Elkarrekin egindako kantua bakarrik. Txumak eta Rafak badute lotura gehiago. Nik kantuak akustiko prestatu nituen, baina entseatu ahala, elektrikoago eta kañeroago egin ditut.

Txuma Murugarren: Gure arteko lokarri sendoa da gure kontuak kantatu egiten ditugula. Istorioak kontatzeko eta kantatzeko grina.



Elkarrekin egindako *Gaua eta kea* kantuan diozue: "Ikusleak gureak egitea lortzen dugu abesti ergelekin".

RR: Musika izan daiteke kriston eragina duen birusa baina zure bizitzan konturatu gabe sartzen dena. Fondoko musika esatean badirudi gutxietsi egiten dela, baina musika horrek eragina du gugan, nahiz eta ez ohartu. Musikaren dualitatea nabarmendu dugu, ergel-tzat definitu arren mespretxu eginez, baina musikak duen ekarria onartuz.

Kantu egileak zarete, kantariak... Harreman berezia duzue ikusleekin?

TM: Sasoi Ilunak taldearekin eta bakarkako lehenengo lanarekin ez neukan publikoa edukitzearen kontzientziarik. Nire burua gutxietsi egiten nuen. Jendea nire kantuak abesten ikusi dudanean konturatu naiz badudala nolabaiteko eragina.

RR: Honetan bagabiltza halako puntu exhibizionista dugulako da. Kantuak gustuko ditugulako egiten ditugu lehenengo, baina beste bati erakutsi behar dizkiogu.

P: Gure burua erakutsi nahi dugun pertsonak gara, kantuen bitartez. Niri gertatu zait, inoiz, kantu bat jendaurrean abesteko lotsatzea. Gerora, jendearen arreta ikusi eta gero, abesti horrenganako ziurtasuna hartzea. Gure kontuak kantatzeak alde hori ere badauka.